


Zebrak eta bideak



Nerea Loiola Pikaza

Bilduma: Narratiba, 155

Formatua: 150 x 220 mm

Orrialdeak: 144

Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2024-11-08

ISBN-a: 978-84-9109-940-6

Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa

19,00 €



Gazte bat, ezezkorik esan ezin diona bere etxeko terrazan Ikeako iragarki bat grabatzeari. Emakume bat, haur jaioberria gauzez esnatzearen beharrak obsesionaturik, edozer egiteko prest dagoena idazten ari den ipuina amaitzeko. Iraganeko gertakari tragikoa, ustez desiratutako bizitzaren zimenduak astintzera itzuli dena. Noraezean dabilen nerabea, askatasunaren konplexutasunak ezinbestean kolpatuta. Beste emakume bat, ekilibrioak egiten dabilena pultsio basati batekin eta bultzatzen duena bere baitatik ihes egitera, gertatu beharrekoari gertatzen uztera. Ama-emazte eredugarria, hoteleko ohe handiegiaren izara artean katramilatu dituen desirak, beldurak eta marra gorriak.

Sei ipuinez osatua da Nerea Loiolaren bigarren narrazio bilduma hau. Ipuin hauetako pertsonaiek aurrera egin beharko dute bizitzak ezarritako bidegurutzetan; ezezagunera urratsak egin, emakumea eta animalia itzal-errebelazio binomioaren zokorik ezkutuenetan elkartzen diren lekuetara. Geldirik egotea ez da aukera bat.

Ahots propioa, estilo fin eta zuzena eta erakarmen-indar handiko istorioak dakartza Loiolak berriz ere; beti giza harremanei eta emozioen euste-hormen pitzadurei so, xehetasunari eta keinuari adi.

Liburuko azken kontakizunak ematen dio izena: *Zebrak eta bideak*.

Nerea Loiola Pikaza



Nerea Loiola Pikaza (Deba, 1985). Ingeniaritza Mekanikoan graduatua da, eta idazlea eta literatura-bitartekaria lanbidez.

Helduen narratibaz gainera, artikulugintza, gidoigintza, komikia eta haur eta gazte literatura landu ditu. Bereak dira, besteak beste, *Harri bat poltsikoan* (2018) eta *Naian* (2022) haurrentzako ipuinak, gazteei zuzendutako *Eskapu* Liburuak bilduma [7G *udalekuak* (2022), *Azken denbora* (2023) eta *AHT* (2024)] eta *Epizentroa* (2021) eta *Zebrak eta bideak* (2024, RGG bekaren irabazlea) narrazio liburuak.

<https://nerealoiola.com>